

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak uholdeengatik piztutako larrialdi-egoera desaktibatu du

Barcina Lehendakariak Espainiako Gobernuari eskatu dio kaltetuentzako laguntzak ezartzen dituen lege-dekretu bat izapidetu dezala

Martes, 11 de junio de 2013

Nafarroako Gobernuak larrialdi-egoera desaktibatu du eta [Uholdeen Larrialdi Plan](#)ean aurreikusitako normaltasun-egoerara pasa da, urak jada Aragoiko lurretan barrena doazela ikusita.

Bestalde, Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcinak Barne ministro Jorge Fernández Díaz eta Nekazaritzako ministro Miguel Arias Cañete-rekin hitz egin du. Lehendakariak eskatu die azken uholdeengatik suertatutako kaltetuentzat laguntzak ezarriko dituen dekretu-lege bat egin dezatela, era honetako ekintzetan erabiltzen den mekanismoa, hain zuzen.

Espainia eta Nafarroako gobernuen arteko ezinbesteko elkarlana defendatu duen Barcinak, halaber, Gobernu zentraleko presidente Mariano Rajoy-ren deia jaso du, uholdeek zer kalte eragin dituen jakin nahian.

Gogoratu behar da Nafarroako Gobernuak foru-agindu bat prestatzen ari dela uholdeen ondorioz egiten diren obra edo konponketei dagokien kontribuzioaren zergak ez ordaintzeko.

Ebro ibaia gainezka

Ebro ibaia gainezka egin ondoren urpean utzi ditu atzo arratsaldetik Castejonetik beherako uretan dauden udalerrietako soro landuak, Arguedas eta Valtierra berezki; toki horietan ibaiak lubeta gaintu du. Aldiz, Buñuel, Fontellas eta Ribaforada udalerrietan kalte gutxiago izan dute lubeta udalek beraiek ordeztu baitzuten. Nolanahi ere, oro har, Nafarroako Larrialdi Agentziak adierazi du Ebroren uhaldia soro landuetan izan duen eragina iragan urtarrean izan zuena baino dezente txikiagoa izan dela.

Bestalde, N-113 errepideak (Iruña-Madril) itxita jarraitzen du Castejón parean (75 eta 77 KP) Ebro ibaia udalerririk horretan gainezka egin



Ebro ibaia Castejón inguruan urpean hartutako lurra.

ondoren.

Une hauetan, 08:40an, Ebroren ibaiaren emaria Castejónetik pasatzean 1.432 m³/s-ra jaitsi da; atzo, emari hori atzo 1.907 m³/s-ra iritsi zen 18:30ak aldera, uhaldia bere puntu gorenean zegoenean. Nafarroako ibaietan dauden gainerako [edukiera-estazio](#)ek maila normalak dituzte.

Suhiltzaileen esku-hartzeak eta errepideen egoera

Cordovillako (Galar) Parke Nagusiko suhiltzaileek eta Iruñeko hiriko parkeko suhiltzaileek garbiketako eta ura kanporatzeko lanak egiten jarraitzen dute honako kale hauetan: Iruñeko Joaquín Beunza, Pedro de Alejandría eta Arga Ibaia kaleetan eta Atarrabiako Ultzama kalean. Atzo 70 bat esku-hartze egin ziren higiezin-mota horietan, bereziki Atarrabiakoetan eta Iruñeko Arrotxapea auzokoetan.

Errepide-sare nagusian, N-113 errepidean izandako mozketaz gain (Iruña-Madril), Iruñeak Behobiarekin bat egiten duen errepideak (N-121-A) itxita jarraitzen du, Belateko tunelen parean, luiziagatik. Puntu horretan zirkulazioa Belateko mendateko errepidetik (NA-1210) bideratzen da eta Nafarroako Gobernuak Gipuzkoa edo Frantziara doazen ibilgailu astunei Leitzarango Autobia (A-15) erabiltzeko gomendioa egin die. Gogoratu behar da Iruñeko Ingurabideko (PA-30) hegoaldeko noranzkoak moztuta jarraitzen duela luiziagatik, Oriain eta Arreko biribilguneen artean.

Azkenik, bigarren mailako sarean aukerako pasabide bat dago Ilurdotzeko errepidean (NA-2339), Esteribarren, galtzadan, 2,4 KPan, luizia izan delako; eta NA-120 errepidean galtzada estutu da (Lizarra-Beasain) 28. KPan izandako luiziagatik. Errepide-sarean izandako gainerako gorabeherak honako helbide honetan kontsulta daitezke: <http://incidenciascarreteras.navarra.es>.